

Audioaren erreferentzia: Bagoaz A2E18i *Internet bidezko aurkezpena*

Maila: A2

Helburua: Zerbait egiten ari garenean, proposamenak egitea.

Funtzioak: Proposamenak edo instrukzio modalizatuak ematea.

Azken jarduera: Pantaila baten aurrean jarrita, zerbait erosi edo erreserbatzea, horretarako proposamenak eginez.

Adierazpide linguistikoak:

- Agintera: sartu (zaitez), jarri (ezazu)
- Proposamenak egiteko formak: Zergatik ez....?, geroaldia
- Lexikoa:
 - Internetekin lotutakoak (webgune, helbide, web-orri...)
 - Ekintzak: erreserbatu, erreserba egin, sartu, begiratu, nabigatu, erosi...

1. ENTZUN AURRETIK

Interneten bidez, erreserbak egiten ibiliko dira Josu eta Amaia Bagoaz-eko atal honetan; eta guk ere zerbaiten erreserba egiten edo erosten jarriko ditugu hemen. Lehendabizi, Internet zertarako erabiltzen duten galdetuko diegu; baita ere, zer webgune edo helbidetan sartzan diren normalean. Taulako eskuineko zutabearen idatzi ditzakete helbide horiek. Gai honen inguruan jarduteko, elkarrizketa-eredu batzuk dauzkate. Bukaeran, bikote bakoitzak eman dezake azalpentxo bat denen aurrean.

Atal hau bukatzeko, gero entzungo duten audioaren gaineko hipotesia egiteko eskatuko diegu ikasleei; audioa entzuten dutenean argituko dute puntu hori. Galdera da zertan ari diren Josu eta Amaia pantaila aurrean. Galdera hau efektiboa izan dadin, ez da komeni aurretik pista gehiegi ematerik zertaz doan kapitulu honetako istorioa



Erantzunak: c

2. ENTZUN BITARTEAN

Audioko mezua ondo ulertu duten erreparatzeko tartea. Hasieran bakarka eta gero bikoteka adostu behar dituzte erantzunak. Zuk baloratu zenbat aldiz entzun behar duten audioa, osorik edo zatika.

Erantzunak: 1-b, 2-b, 3-c, 4-a, 5-a

3. ENTZUN ONDOREN

  3.1 Atal honetako gidoian, asko ageri dira aginduak. Josu etengabe ari da aginduak edo instrukzioak ematen Amaiari, hori nazkatzeraino. Horregatik, atal honetako 1. ariketan esango diegu erreparatzeko aginterazko aditzei eta idazteko beheko taulan. Idatzi bi modutara egin behar dute: aditz nagusia jarrita, 1. zutabean; laguntzailea, bigarrenean. Kontuan hartu euskaraz aginteran aditza laguntzailea jartzea ez dela beharrezkoa; hemen, aditz laguntzailea lantze aldera dago planteatuta ariketa.

Erantzunak:




Testuko aginterazko aditzak	Agintera aditz laguntzaileekin
1- jar	ezazu
2- bilatu	ezazu
3- hurbildu	ezazu
4- sartu	zaitez
5- begiratu	ezazu
6- egin	ezazu
7- barkatu	ezazu


3.2 Jarri arreta hizkuntzan, proposamenak egiteko beste hizkuntz-forma batzuk azaltzen dira: **zergatik ez....?** eta aditza **geroaldian**. Azken batean, funtzio bera betetzen dute, modalizatutako aginduak baitira.

Jarraian, hiru formak lantzeko ariketa analitiko bat daukate.

Erantzunak (3.3):

1. Lan hori egiteko, bilatu/bila ezazu informazioa helbide honetan.
2. Lasaiago ibiltzeko, erosiko ditugu sarrerak online?
3. Guk etxea alokatuko dugu, eta zuek zergatik ez duzue hegazkina erreserbatzen?
4. Nik edaria ordainduko dut eta zuk ordaindu (itzazu) pintxoak.
5. Gastuak ordaintzeko, jarriko dugu dirua?

   3.4 Benetako ekintza bat egiteko eskatuko diegu ikasleei. Pantaila baten aurrean jarri eta zerbaiten erreserba egin edo zerbait erosi behar dute Internet bidez.

 **Oharra:** Komeni da jarduera hau egiteko, ikasleei aurretik esatea klasera tresnaren bat ekartzeko : ordenagailu eramangarria, tableta, telefono smartphone bat...

Zerrenda batetik eginkizun bat aukeratu behar dute, binaka jarrita. Ondoren, jarri pantaila aurrean eta Interneten nabigatu behar dute eta zerbait erosi edo erreserba bat egin. Hori egiteko, proposamenak

egin behar dizkiote elkarri, aurretik 'Jarri arreta hizkuntzan' eskainitako hizkuntza-baliabideak erabiliz, ahal dela. Elkarrizketa-eredu batzuk ere eskaintzen zaizkie. Gero talde aurrean aurkeztu behar dutenerako, helbide eta webgunek apunta ditzakete.

✖ Bukatzeko, talde osoaren aurrean aurkeztu dezakete zertan eta nondik ibili diren.

AUDIOAREN TRANSKRIPZIOA

AMAIA.— Egin al duzu inoiz bidaiaria baten erreserbarik Internetez, Josu?

JOSU.— Ez, badakit nola funtzionatzen duen, baina orain arte ez dut horrelakorik egin.

AMAIA.— Orduan, zergatik esan zenuen guk biok egingo genuela oporretako etxearen erreserba?

JOSU.— Bakoitzak lan bat egin behar duelako: Alexek eta Juneek furgoneta alokatu behar dute; Oierrek eta bere lagun batek surfeko taulak prestatuko dituzte; eta zuk eta nik etxearen erreserba egingo dugu.

AMAIA.— Ondo da. Begira, niri gehien gustatzen zaidan webgunea hau da: Goazen!

JOSU.— Bidaiak erreserbatzeko?

AMAIA.— Bai, goazen.com, bidaiak, etxe-alokairuak... nahi duguna.

JOSU.— Ederki! Goazen ba!

AMAIA.— Gogoratzen zara zer esan genuen atzoko bileran?

JOSU.— Ea ba. Uztailleko lehen hamar egunak hartuko ditugu; sei lagun joango gara; hondartza bat aurkitu behar dugu Andaluzian, surfa egiteko; eta alokatuko dugun etxeak itsasotik oso gertu egon beharko du.

AMAIA.— Hori burua, motel! Ba datu horiekin... Begira, Hierbabuena hondartza, Barbate ondoan.

JOSU.— Ea, bilatu Google Maps-en.

AMAIA.— Oraintxe.

JOSU.— Jar ezazu sateliteko ikuspegia.

AMAIA.— Ados.

JOSU.— Hurbildu gehiago.

AMAIA.— Horrela? Sekulako hondartza da!

JOSU.— Bai, ederra!

AMAIA.— Nahiko lasaia ematen du.

JOSU.— Hobeto. Orain etxearen erreserba. Sartu webgunean. Barbatan bertan, ados?

AMAIA.— Bai, nagusi!

JOSU.— Kanpo aldean dagoen etxe hori ez dago batere gaizki. Begiratu libre dagoen.

AMAIA.— Mesedez.

JOSU.— Mesedez, zer?

AMAIA.— Mesedez eskatzeko.

JOSU.— A, barkatu!

AMAIA.— Egin nahi duzu zuk bilaketa?

JOSU.— Ez, ez, ez, oso ondo ari zara.

AMAIA.— Horixe, hitzez hitz betetzen ari naiz esaten duzun guztia. Bai, libre dago.

JOSU.— Bikain! Egin erreserba!, azkar!

AMAIA.— Nagusi, bai, nagusi!

JOSU.— Ai, bai. Neska, barkatu, neska!

AMAIA.— Tira, deitu besteei eta esan aurkitu dugula etxea. Bitartean, erreserbaren prozesua amaituko dut!

JOSU.— Printzesa, bai, printzesa!

AMAIA eta JOSU.— Kar-kar-kar!

